

Donostia, 2020ko otsailaren 21a

### UDALBATZAKO IDAZKARI NAGUSIARI

#### EMAKUMEEN ETXEAREN KOKAPEN BERRIARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Aitzole Araneta Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babestean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO, DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEAREN KOKAPEN BERRIARI BURUZKOA.

#### JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Emakumeen Etxeak hamar urte bete ditu. 1.300 bazkide ditu eta urtean 30.000 emakumek gutxi gorabehera parte hartzen dute haren jardueretan. Hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldian, prentsatik jakin ahal izan dugunez, Duñike Agirrezabalaga Berdintasuneko zinegotzi ordezkaria Emakumeen Etxea beste leku batean kokatzearen beharraz mintzatu zen.

Gure taldeak behin eta berriro esan du ezinbestekoa dela Emakumeen Etxeari kokapen berri bat bilatzea, leku egokiago bat, bat etorriko dena etxearen egungo behar eta erabiltzaile kopuruarekin. Hala ere, gobernua inoiz ez da lekuz aldatzearen alde agertu, eta 2020rako gure aurrekontu zuzenketak ere baztertu ditu, aldaketa honetarako aurrekontu sail bat aurreikusten zutenak.

Batzordean gai honen inguruan galdetuta, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen gaur egun kontuan hartzen den kokapen berri posible bakarra Easo kaleko musika kontserbatorioarena dela. Gainera, onartu zuen gaur-gaurkoz ezin dela ziurtatu kokapen hori erabilgarri egongo ote den etorkizunean.

Nolanahi ere den, egungo Emakumeen Etxea txiki geratu da bertan egiten den lan guztirako, eta funtsezkoa da kokapen berri bat aurkitzea lehenbailehen, haren jarduerak eta bazkide/erabiltzaile kopuruak hazten jarrai dezaten orain arteko erritmo berean. Gainera, Emakumeen Etxearen kontseiluak berak ere adierazi du ezinbestekoa dela proiektuak espazio propio bat edukitzea, bere nortasunari eutsi diezaion, etxearen erabiltzaileekin zerikusirik ez duten beste era bateko erabiltzaile profilekin partekatuko ez duena.

Horregatik guztiagatik, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kokapen berri bat bila dezala lehenbailehen Emakumeen Etxearentzat, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzungo diena eta aukera emango diena hazten jarraitzeko etxean egiten diren jardueri eta eskaintzen diren zerbitzuei.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma bat egin eta argitara dezala, Emakumeen Etxea lekuz aldatzeko faseak eta epeak zehaztuko dituen.

Stua: Aitzole Araneta

*Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea*